

ZERBITZUAREN BALDINTZA BEREZIAK MOVISTAR PLUS+ MIMOVISTAR-ERAKO

1. BALDINTZA BEREZIAK ETA HORIEN ONARPENA

1.1. Xedea.

Jarraian azalduko diren Baldintza Bereziek (aurrerantzean, "Baldintza Orokorrak") TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U.-ren (aurrerantzean, MOVISTAR), A-82018474 IFK zenbakia duena, helbidea Gran Vía 28, 28013 Madrilen duena, Madriliko Merkataritza Erregistroan inskribatua dagoena (13.170. liburukian, 0. liburuan, 8. atalean, M-213.180 orrian), eta Zerbitzuaren BEZEROAren (aurrerantzean, BEZEROA) arteko kontratu-harremanak arautzen dituzte MOVISTAR+ Zerbitzua emateari dagokion guztian.

1.2. Onespena.

Baldintza berezi hauek zalantzarik gabe onartzea ezinbestekoa da MOVISTAR-ek Zerbitzua eman ahal izateko. Horren harira, Bezeroak adierazten du Baldintza berezi hauek irakurri, ulertu eta onartu dituela; une oro daude eskuragarri www.movistar.es/contratos helbidean.

Bezeroak Ficción con Netflix X2 eta Ficción con Netflix X4 moduluak kontratatzen baditu, ezinbestekoa da, gainera, MIMOVISTAR ZERBITZUAREN PARTE DELARIK NETFLIX-ERAKO SARBIDEAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK ere onartzea.

1.3. Movistar Plus+ zerbitzuaren baldintzekiko lotura.

Movistar Plus+ zerbitzua emateko Baldintza orokorrek (www.movistar.es/contratos helbidean argitaratuak) Baldintza berezi hauek osatzen dituzte, haietan aurreikusten ez den orori dagokionez.

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

MOVISTAR Zerbitzua MOVISTAR+ seinalea atzitzeko zerbitzua da.

Zerbitzu horrek prestazio hauek ditu:

- Kanal nazional, lokal, tematiko, eskaripeko eduki eta, hala badagokio, BEZEROAK kontratatutako paketearen arabera MOVISTAR-ek une bakoitzean zehazten dituen dastatze-kanaletarako sarbidea.
- Halaber, MOVISTAR-ek Alokairu-zerbitzu bat jarriko du bezeroaren eskura. Zerbitzu horren bidez, BEZEROA 24 orduz sar daiteke Eskaripeko edukietara, prezio jakin baten truke.
- Gainera, kontratatutako eskaintzaren arabera, MOVISTAR-ek BEZEROAREN esku jartzen dituen eduki-aukera hauetarako sarbidea, kontratatzeko unean duen hileko kuotarekin berariaz kontratatuta: Kanalak, Kanal-paketeak eta eskaripeko eduki gehigarriak.

- Aukeran, MOVISTAR+ ZERBITZUAN eskuragarri dauden hirugarrenen zerbitzuetarako sarbidea, BEZEROAK horietako bakoitzaren baldintza espezifikoak onartu ondoren.

3. ZERBITZUAREN ESKURAGARRITASUNA

Bezeroak Zerbitzua kontratatu ahal izateko, miMovistar Zerbitzua izan beharko du. Beste edozein modulu edo eskaripeko kanal kontratatzeke, bezeroak Movistar Plus+ Esencial modulua izan beharko du.

4. INDARRALDIA

Baldintza hauek kontratatzen den egunean jarriko dira indarrean, edo miMovistar produktuaren alta ematen den egunean, alta hori beranduagokoa bada. Baldintza hauek formalizatu ondoren, iraupen mugagabea izanen dute.

5. ZERBITZUAREKIN KONTRATA DAITEZKEEN MODULUAK

- Champions y Europa League

La liga de Campeones por Movistar Plus+ kanala du barnean, UEFA Champions League, UEFA Europa League eta Conference League ligak eskaintzen dituena. Halaber, Europako liga onenetako bi ere eskaintzen ditu, Bundesliga eta Italiako A Seriea hain zuzen. HD kalitatean zuntza duten bezeroentzat. Movistar+ en Dispositivos eta Grabaciones-en 350 h-rekin, bakarrik eskuragarri etxeko erabilerarako. Zerbitzu hau ez dago eskuragarri lokal publikoak diren bezeroentzat.

- Deportes

Hauek hartzen ditu barne: Deportes por Movistar Plus+ kanala, tenis-txapelketa onenekin, Ipar Amerikako saskibaloiko liga handiekin, errugbia eta atletismoarekin, besteak beste; Golf por Movistar Plus+ kanala, golfeko zirkuitu profesional onenekin; eta DAZN kanala, 1 Formulako txapelketekin. HD kalitatean zuntza duten bezeroentzat. Movistar + en Dispositivos-ekin eta DAZN aplikaziorako sarbidearekin, kostu gehigarririk gabe, eta Grabaciones-en 350 h-rekin, bakarrik eskuragarri etxeko erabilerarako. Zerbitzu hau ez dago eskuragarri lokal publikoak diren bezeroentzat.

- Ficción

Cine-ko kanal propio guztiak ditu barnean eta, gainera, Series 2 por Movistar+ kanala eta Disney+-erako sarbidea. HD kalitatean zuntza duten bezeroentzat. Movistar Plus+ en Dispositivos eta Grabaciones-en 350 h-rekin, bakarrik eskuragarri etxeko erabilerarako. Zerbitzu hau ez dago eskuragarri lokal publikoak diren bezeroentzat.

6. PREZIOA, FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA

6.1. Prezioa

Zerbitzuaren ordain gisa, BEZEROAK modalitate bakoitzari dagokion prezioa ordaindu beharko du, unean uneko prezioen arabera. Egungo prezioak I. ERANSKINA PREZIOAK dokumentuko prezioen taulan ageri dira.

6.2 Fakturazioa eta ordainketa.

Zerbitzua dela-eta fakturatzen diren kontzeptu guztiak hilabetea bukatutakoan fakturatuko dira, hilerro, eta MOVISTAR-ek MOVISTAR PLUS+ Zerbitzua emateari dagokion fakturan sartuko dira.

Bezeroak eskura duen MOVISTAR PLUS+ Zerbitzuari dagokion faktura kobratzera aurkeztzen den unetik bertatik eskatu ahal izango da zerbitzuari dagokion ordainketa. Bezeroak horretarako adierazten duen Banku-erakundean edo Aurrezki-kutxan duen kontuaren bidez egingo da ordainketa, edo, bestela, MOVISTAR-ek gaitu duen lekuan, kobratzera aurkeztutakoan, espresuki agertuko dena BEZEROARI bidalitako ordainketa-abisuan. Fakturan adieraziko da ordainketa egiteko epea.

Bezeroak berariaz baimentzen du Telefónica de España S.A.U. kontratatutako Movistar Plus+ zerbitzuari dagozkion fakturak kobratzeko, satellite bidezko telebistaren hornidura badu ere. Halaber, barne hartzen diren edukiak gainditzen dituzten satellite bidez hornitutako telebista-educiei dagozkien kontzeptuak Telefónica de España S.A.U.-k fakturatuko dizkio BEZEROARI faktura independentean, BEZEROAK eta Telefónica de España S.A.U.-k sinatutako kontratuan xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan xedatutakoaren arabera egindako lehen fakturan, hala dagokionean, deskodegailuaren alta-, instalazio- eta kableatu-kuotari dagokion zenbatekoa sartuko da, aukerako instalazio-zerbitzu guztiekin batera. Lehen kuota hainbanatuko da ZERBITZUAK indarra hartzen duen egunaren arabera.

Kasu horretan, MOVISTAR Plus+ Zerbitzua kontratatzeak berekin dakar BEZEROAK faktura formatu elektronikoa jasotzea; hala ere, kontratazioan paperezko faktura aukeratzeko eskubidea du.

Ordainketa atzeratzen bada, MOVISTAR-ek Zerbitzuaren prestazioa eten ahal izango du, BEZEROARI ordainketa eskatu ondoren, BEZEROAK errekerimendu hori egin eta zazpi (7) eguneko epean ordaindu ez badu.

Epe hori igarota, MOVISTAR-ek berriro eskatuko dio BEZEROARI, eta hamar (10) eguneko epea emango dio berriro. Epea igaro ondoren, MOVISTAR-ek zerbitzua behin betiko eten ahal izango du, eta baja emango dio.

Halaber, ordaindu ezean, zorrari buruzko datuak kreditu-informazioko sistemak kudeatzen dituzten erakunde hauei jakinarazi ahal izango zaizkie: ASNEF, EQUIFAX IBERICA, S.L. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema; BADEXCUG, Experian Bureau de Crédito, S.A. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema, eta BEZEROARI behar bezala jakinarazten zaion beste edozein

1. ERANSKINA KONTRATATU DAITEZKEEN MODULUAK

KONTRATATU DAITEZKEEN MODULUEN HILEKO KUOTAK MIMOVISTAR-erako MOVISTAR PLUS+ ZERBITZUKOA⁽¹⁾	
Produktua	Hileko kuota (€/hileko, zergak barne⁽²⁾)
CHAMPIONS Y EUROPA LEAGUE	20,00
DEPORTES ⁽³⁾	18,00
FICCIÓN	15,00

(1) Aurreko kanal gehigarriren bat kontratatu ondoren, kontratatu ondoko lehen 15 egunak igaro aurretik utziz gero, kuotaren %50 ordaindu beharko da, edukiak eskuratzeko zerbitzuari lotutako kostu gisa, eta hileko kuotatik dagokion zatia ere bai. Bi zenbateko horien batuketak ezin izango du inoiz ere gainditu kontratatutako kanalak duen hileko kuotaren balioa.

(2) Prezio hauek ez dira aplikatzen Ceuta, Melilla eta Kanariar Uharteetan, non zeharkako zerga murriztuak aplikatzen diren indarrean dagoen legearen arabera: Kanariar Uharteetan %7ko IGICa, Ceutan %10eko IPSIa eta Melillan %8ko IPSIa.

(3) Pakete hauetako edozein kontratatzean, eskaintzan Movistar Plus+ plataformatik kanpo dagoen Dazn edukiaz gozatzea sartzen da, DAZN Spain, S.L.U.-k ematen duena, www.dazn.com helbidean argitaratutako erabilera-baldintzen arabera. Zerbitzu horretaz gozatu ahal izateko, Bezeroak kontua behar bezala aktibatu behar du <https://www.movistar.es/activaDAZN> helbidean edo <https://sitioseguero.movistarplus.es/zonacliente/DAZN> helbidean (Satelitea bada), eta Dazn-en harpidetza-kontratua onartu behar du. Dazn erabiltzean, Bezeroaren kontu pertsonala identifikatzeko kode bat jakinaraziko da Movistar eta DAZN Spain, S.L.U.-ren artean, kontratu-harremanari eta zerbitzuaren hornidurari eutsiko zaiela ziurtatzeko. DAZN Spain, S.L.U.-k burutu lezaken Bezeroaren datu pertsonalen gainerako datu tratamenduei dagokienez, bere erabilera-baldintzak eta bere Pribatutasun-politika kontsultatu behar dira.

2. ERANSKINA DISNEY+-ERAKO SARBIDEAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK, MIMOVISTAR-ERAKO MOVISTAR PLUS+ ZERBITZUAREN PARTE GISA

1. XEDEA

Baldintza Berezi hauek (aurrerantzean, "Baldintza Bereziak"), miMovistar Zerbitzuaren Baldintza Berezieta erantzen dira, eta Disney+ Zerbitzuaren (aurrerantzean, "Disney+") alta eman nahi duten Bezeroei aplikatuko zaizkie, miMovistar Zerbitzuaren parte gisa (aurrerantzean, "Zerbitzua"). Horien xedea Disney+-erako sarbidea arautzea da, Zerbitzuaren parte gisa.

Zerbitzua erabili ahal izateko ezinbestekoa da Baldintza Berezi hauek guztiak onartzea. Bezeroak adierazten du, ildo horretan, Baldintza Berezi hauek irakurri, ulertu eta onartzen dituela, bere eskura jarrita daudenak une oro, webgune honetan: www.movistar.es/contratos.

Modu gehigarrian, Disney+-en erabilerak Bezeroak Disney+ ongi aktibatzea eskatzen du, bai eta harpidetza-kontratuaren onospena ere, alde aurretik onartu ez bada, disneyplus.com helbidean argitaratuta dagoena.

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Disney+-erako sarbidea duen miMovistar Zerbitzuak une honetan The Walt Disney Company (Benelux) BV enpresak ematen duen Disney+- en edukien plataformarako sarbidea hartzen du barne, www.disneyplus.com helbidean argitaratutako Disney+-en erabilera-baldintzen arabera.

3. GAILU BATERAGARRIAK

Gailu bateragarriak momentu bakoitzean Disney+-en erabilerabaldintzetan zehaztutakoak dira, www.disneyplus.com helbidean daudenak eskuragarri.

4. ZERBITZUAREN ESKURAGARRITASUNA

Disney+ Zerbitzua bakarrik egongo da eskuragarri eta bakarrik aktibatu ahal izango da aktibatzen den momentuan Bezeroaren miMovistar tarifa Zerbitzuarekin bateragarria denean.

Zerbitzua ez da bateragarria izango Movistar-ek eskaintzen duen IPTV eta Satellite bidezko telebistaren zerbitzuarekin.

5. ZERBITZUAREN OINARRIZKO ALDERDIAK

5.1. Zerbitzuaren alta

Disney+-erako sarbidea hartzen duen miMovistar Zerbitzuko alta-prozesuan, bezeroak Disney+ zerbitzuaz gozatu nahi badu, Disney+ aktibatu beharko du www.movistar.es/disneyplus helbidean deskribatutako baldintzen arabera.

Horretarako, miMovistar Zerbitzuaren kontratazioa bukatzean, Bezeroak Disney+-eko kontua aktibatu beharko du movistar.es/activadisney helbidean, Mi Movistar gune pribatuan edo Mi Movistar aplikazioan. Momentu horretatik aurrera, Disney+-eko edukiez gozatu ahal izango du eta faktura bakarra jasoko du Zerbitzua emateagatik.

5.2 Disney+ erabiltzaile-kontuaren aktibazioa

Disney+-en edukiez gozatu ahal izateko beharrezkoa da Disney+ erabiltzaile-kontu bat izatea edo Disney+ kontu bat sortzea.

Edozein kasutan, beharrezkoa da bezeroak haren Zerbitzua Disney+ erabiltzaile-kontuarekin elkartzea, www.movistar.es/fusiondisney helbidean zehaztutako baldintzen arabera.

5.3. Bezeroaren lotura Baldintza Berezieta

Disney+-en alta ematea aukeratzen duen Bezeroa, miMovistar zerbitzuko parte gisa, Baldintza Berezi hauetara lotuta geldituko da, bere Kontratuaren parte izatera pasatuko direnak. Aplikatzen diren kontratuzko eta prezioen baldintzak Disney+ zerbitzurik gabeko miMovistar zerbitzuari aplikatzen zaizkion berdinak dira.

Bezeroak badaki miMovistar Zerbitzuaren eskaintza komertziala oso zabala dela eta etengabe dagoela aldatzen. Hortaz, Disney+ Zerbitzua barne hartzen duten miMovistar modalitateak aldatu egin ahal dira momentu bakoitzean eskuragarri dagoen eskaintza komertzialaren arabera. Bezeroa www.movistar.es webgunera joan beharko da Zerbitzua barne hartzen duten produktu eta zerbitzuen zerrenda eguneratuari buruzko informazioa jasotzeko.

6. BAJA ZERBITZUAN

Bezeroak Disney+-erako sarbidea barne hartzen duen miMovistar Zerbitzuaren baja eskatzen badu, Bezeroaren eta Movistaren arteko uneko kontratuzko harremana ebatziko da, eta Disney+-erako sarbidea galduko da.

7. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

miMovistar Zerbitzuaren Baldintza Berezieta datuen babesari buruzko klausulan zehaztutakoari kalterik egin gabe, Zerbitzuaren erabilerak Movistar eta The Walt Disney Company Iberia, S.L. (aurrerantzean, Disney+) arteko Bezeroaren kontu pertsonaleko kode identifikatzaile baten komunikazioa ekarriko du, kontratuko erlazioa eta zerbitzua ematen dela bermatzeko xedearekin. Disney+-ek Bezeroaren datu pertsonalen gainean egin ditzakeen gainerako tratamenduei dagokienez, Disney+-en erabilera-baldintzak eta haren Pribatutasun-politika kontsultatu behar izango dira.

3. ERANSKINA DAZN-ERAKO SARBIDEAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK, MIMOVISTAR-ERAKO MOVISTAR PLUS+ ZERBITZUAREN PARTE GISA

1. HELBURUA

Baldintza berezi hauek (aurrerantzean, "Baldintza bereziak") miMovistar Zerbitzuaren Baldintza bereziei gehitzen zaizkienak, Baldintza berezi hauen 2. klausulan deskribatutako DAZN Zerbitzuari (aurrerantzean, "DAZN") alta ematea erabakitzen duen bezeroari aplikatuko zaizkio, miMovistar Zerbitzuaren barruan (aurrerantzean, "Zerbitzua"). DAZN zerbitzurako sarbidea arautzea dute helburu, Zerbitzuaren parte gisa.

Baldintza berezi hauek erreserbarik gabe onartzea ezinbestekoa da Zerbitzua erabiltzeko. Bezeroak adierazten du, zentzu horretan, Baldintza berezi hauek irakurri, ulertu eta onartu dituela, betiere, bere esku jarri direnak hemen: <https://www.movistar.es/contratos>.

DAZN Movistar Plus+ plataformatik kanpo erabiltzeko, Bezeroak kontua behar bezala aktibatu behar du, eta harpidetza-kontratua onartu behar du, aldez aurretik onartu ez bada, hemen argitaratuta dagoena: dazn.com.

2. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

DAZN sareko bideo-zerbitzu bat da, eta, besteak beste, kirolemanaldiak (bai zuzenean, bai eskaripean), kirol-ekitaldien laburpenak eta horiekin lotutako beste eduki batzuk eskaintzen ditu; horien osaera eta erabilgarritasuna aldatu egin daiteke denborarekin (guztiak batera, "Edukia").

Kontratatua duzun miMovistar Zerbitzuak DAZN zerbitzuaren Edukia barne hartzen badu eskaintzan, gaur egun DAZN Spain, S.L.U.-k ematen duena, dazn.com helbidean argitaratutako DAZN zerbitzuaren erabilera-baldintzen arabera, kontu bat sortu eta haren Edukira sartu ahal izango zara, Erabilera-baldintzetan une bakoitzean agertzen diren gailu bateragarrien bidez.

3. ZERBITZUAREN BATERAGARRITASUNA

DAZN erabilgarri egongo da eta hura aktibatu ahal izango dute DAZN zerbitzuarekin bateragarria den miMovistar tarifa duten Bezeroek. DAZN bateragarria izango da Movistar-ek IPTV eta Satellite bidezko telebista-zerbitzua ematearekin.

Gailu bateragarriak DAZN zerbitzuaren erabilera-baldintzetan une bakoitzean agertzen direnak dira, dazn.com helbidean eskuragarri.

4. ZERBITZUAREN OINARRIZKO PUNTUAK

4.1. Zerbitzuaren alta

DAZN barne hartzen duen miMovistar Zerbitzuan alta emateko prozesuan, bezeroak gailu bateragarrietan Edukiaz gozatu nahi badu, DAZN aktibatu beharko du, <https://www.movistar.es> helbidean deskribatutako baldintzen arabera.

Horretarako, miMovistar Zerbitzuaren kontratazioa amaitzean, Bezeroak DAZN zerbitzuaren kontua aktibatu beharko du [movistar.es](https://www.movistar.es) helbideko "Bezeroa naiz" gunearen bidez, Mi Movistar aplikazioan edo <https://www.movistarplus.es> helbideko Bezeroaren TV gunearen bidez Satelitea duten bezeroen kasuan, eta une horretatik aurrera gailu bateragarrietan Edukiaz gozatu ahal izango du, kontratatua duen miMovistar Zerbitzuaren parte gisa.

4.2. DAZN erabiltzaile-kontua aktibatzea

Gailu bateragarrietan Edukiaz gozatzeko, beharrezkoa da DAZN zerbitzuaren erabiltzaile-kontu bat izatea edo DAZN zerbitzuaren kontu berri bat sortzea.

Nolanahi ere, bezeroak DAZN zerbitzuaren erabiltzaile-kontuarekin lotu behar du bere Zerbitzua, hemen deskribatutako baldintzen arabera: <https://www.movistar.es>

4.3. Bezeroak Baldintza bereziekin duen lotura

DAZN zerbitzuan miMovistar zerbitzuaren parte gisa alta ematea erabakitzen duen Bezeroak Baldintza berezi hauek bete beharko ditu, eta baldintza horiek bere Kontratuan sartuko dira.

Aplikatuko zaizkion kontratu- eta prezio-baldintzak DAZN zerbitzurik gabeko miMovistar zerbitzuaren berberak dira.

Bezeroak badaki miMovistar Zerbitzuaren eskaintza komertziala oso zabala dela eta etengabe aldatzen ari dela; beraz, DAZN barne hartzen duten miMovistar zerbitzuaren modalitateak aldatu egin daitezke une bakoitzean eskuragarri dagoen eskaintza komertzialaren arabera. Bezeroak <https://www.movistar.es> helbidera jo beharko du DAZN barne hartzen duten produktu eta zerbitzuen zerrenda eguneratuari buruzko informazioa eskuratzeko.

4. BAJA ZERBITZUAN

Bezeroak DAZN barne hartzen duen miMovistar Zerbitzuan baja eskatzen badu, Bezeroaren eta Movistar-en arteko kontratuharreman hau eten egingo da, eta DAZN zerbitzurako sarbidea galdu egingo da.

6. DATU PERTSONALEN BABESA

miMovistar Zerbitzuaren Baldintza berezietako datuak babesteko klausulan xedatutakoari kalterik egin gabe, DAZN erabiltzeak Movistar eta DAZN Spain, S.L.U.-ren artean Bezeroaren kontu pertsonala identifikatzeko kode bat komunikatzea ekarriko du, kontratuzko harremana eta

zerbitzuaren hornidura bermatzeko.

DAZN Spain, S.L.U.-k burutu lezaken Bezeroaren datu pertsonalen gainerako datu tratamenduei dagokienez, bere erabilera-baldintzak eta bere Pribatutasun-politika kontsultatu behar dira.